# DONOSTIAK 2019ko EUROPA SARIA JASOKO DU

*Europako Kontseiluak europar eraikuntzan hiriak duen inplikazioa saritu du*

Europako Kontseiluak Donostiari eman dio 2019ko Europa Saria. Urtero Europaren eraikuntzaren balioak zabaltzen dituzten hiriei eskainitako saria, hain zuzen ere. Strasbourgen gaur egin den Legebiltzar Batzarrean iragarri dute Donostiari emandako saria.

Donostiako alkateak, Eneko Goiak, bere poza azaldu du, sari honek "Donostiak Europaren eraikuntzan duen konpromisoa eta inplikazioa azpimarratzen dituelako". Goiak esan duenez, Europako Kontseiluaren errekonozimendua "ibilbide luze baten onarpena da, gure hiriak aspaldian egin duen Europa justu eta solidario baten aldeko apustua sarituz. Bide honek mugarri batzuk izan ditu, tartean 2016an bizitako Europako Kultur Hiriburutza".

Donostiako hautagaitza dossier baten bidez aurkeztu zen, baita bideo baten bitartez ere, non donostiar zein atzerriko herritarrek hiriak bultzatu eta barreiatzen dituen balioak azaltzen dituzten.

Europako Kontseiluak hiri bati ematen dion saririk garrantzitsuena da honakoa, eta Europako 47 estatuen artean banatzen da. Europako ametsaren promozioan bereziki aktiboak diren hiriak saritzen ditu. Sari hau jaso ahal izateko beharrezkoa da aurretik beste honako izendapenak jasotzea:

1.- Europako Diploma (1989an jaso zuen Donostiak)

2.- Ohorezko Bandera (1990an jasoa)

3.- Ohorezko Oroigarria ( 2009an jasoa)

Donostiarekin batera, beste bost hiri izan ziren hautatuak aurten sari hau jasotzeko prozesuan, hala nola:

- Bamberg, Alemania
- Bolesławiec, Polonia
- Issy-les-Moulineaux, Frantzia
- Izmir, Turkia
- Münster, Alemania

Sari hau aldez aurretik egindako lan luze baten emaitza da, eta aurretik jasotako sarien ondorio zuzena da. Oraingoan, Donostiak duen europar izaera eta izpirituak saritu dira, lankidetza eta promozio ekintza ezberdinen bidez gauzatzen direnak hain zuzen, besteak beste lau esparru zehatzetan:

1.- Atzerriko herri eta hiriekin senidetza ekintzak.

2.- Europaren inguruko ekimenak (Europako eguna, maiatzaren 5ean)

3.- Nazioarteko lankidetza eta elkartasuna

4.- Tokian tokiko herri administrazioek europear elkarteei lotzea.

**Konpromiso ibilbide luze baten errekonozimendua**

Donostiako alkateak azpimarratu du Europako Sariak “Kontseiluak ezinbestekotzat jotzen dituen hainbat alorretan hiriak egin duen lana” errekonozitzen duela, besteak beste “elkartasuna, europako hirien arteko lankidetza eta Europako balioen defentsa (demokrazia,

giza eskubideak eta eskubide estatua). Donostiak europar eraikuntzan lan egiten duela agerian utzi du, baita beste hiri askorekin lankidetza ugari dituela nabarmendu ere. Aldi berean, hainbat programa eta erakundeen bitartez elkartasun ekimenetan duen presentzia ere aitortzen ditu sari honek.

“Europak kezkatzen gaitu. Hiri hau ez da europarra bere kokalekuagatik soilik, europar sentitzen delako baizik. Egun, munduaren itxaropena diren balio batzuekin identifikatzen gara. Hirien bitartez ditugun gure loturak indartzea ezinbestekoa da, mundu gizatiarrago bat lortzeko, pertsona guztiek bizi baldintza duinetan bizitzeko aukerak eskaintzeko”, azaldu du Goiak.

Europako Kontseiluaren saria “Europako Egunean” ematen da, eta hiri irabazleak antolatu behar du jasotze ekitaldia. Garaikurra, brontzezko domina, pergaminoa eta gazteentzako ikasketa amaiera ordaintzeko bekak eskaintzen ditu sariak, Europako erakunde nagusiak ezagutzeko helburuz.

Gainera, Donostia Europa Saria jaso duten beste hirien elkartearen parte izango da. Orain arte, 70 hiriek jaso dute honako sari hau.

Donostia, 2019ko apirilaren 11an

Prentsa oharra
Nota de prensa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN, PREMIO DE EUROPA 2019

*El Consejo de Europa reconoce la implicación de la ciudad en la promoción de los valores de la construcción europea*

El Consejo de Europa ha premiado a Donostia / San Sebastián con el **Premio Europa 2019** por su contribución en la difusión de los valores de la construcción europea . El anuncio de la concesión de esta distinción ha tenido lugar en la sesion de la Asamblea Parlamentaria del Consejo de Europa que se ha celebrado hoy en Estrasburgo.

El alcalde de la ciudad, Eneko Goia, se ha felicitado por la concesión de este premio "que reconoce el compromiso y la implicación de Donostia en el proyecto Europeo". Goia ha manifestado que este galardón "es el premio a toda una trayectoria de nuestra ciudad en la construcción de una Europa más justa y solidaria, que tiene diferentes hitos en su historia reciente, como fue la propia Capitalidad Cultural Europea de 2016".

La candidatura de Donostia / San Sebastián se postuló mediante un dossier que fue acompañado de un vídeo en el que varias personas (donostiarras y foráneos) explican los valores que se promueven y proyectan desde la ciudad.

Este galardón es el premio más importante a una ciudad por parte del Consejo de Europa y se otorga entre ciudades pertenecientes a los 47 estados de Europa. Fue creado para premiar a las ciudades que han sido particularmente activas en la promoción del ideal europeo. Para poder optar a este premio la ciudad ha tenido que haber recibido previamente:

1. El Diploma Europeo (Otorgado en 1989)

2. La Bandera de Honor (Otorgada en 1990)
3. La Placa de Honor (Otorgada en 2009)

La ciudad de Donostia fue preseleccionada para este premio junto con otras cinco ciudades europeas:

- Bamberg, Alemania
- Bolesławiec, Polonia
- Issy-les-Moulineaux, Francia
- Izmir, Turquía y
- Münster, Alemania

Este premio es el punto álgido de un largo proceso de trabajo previo realizado por Donostia / San Sebastián y que queda reflejado en el logro de las distinciones previas, que le ha permitido optar al Premio de Europa.

En esta ocasión se ha valorado el carácter y espíritu europeos de la ciudad, así como su contribución al fomento del ideal europeo a través de las diversas actividades de cooperación y promoción que desarrolla, concretamente centrados en 4 ámbitos:

1. Actividades de hermanamiento, relaciones con municipios extranjeros, cooperación y alianzas.
2. Eventos europeos, Día de Europa (5 de mayo) y promoción del ideal europeo.
3. Solidaridad europea e internacional, y
4. Afiliación a asociaciones de administraciones locales

**Reconocimiento a una larga trayectoria de compromiso**

El alcalde de la ciudad ha remarcado que el Premio de Europa “significa un reconocimiento a la labor que la ciudad ha venido desarrollando en aquellos ámbitos considerados fundamentales desde la perspectiva del Consejo de Europa”, especialmente la solidaridad, la colaboración entre las ciudades europeas y la defensa de los valores de Europa (Democracia, Derechos Humanos y Estado de Derecho). Donostia ha acreditado que colabora en la construcción europea y que desarrolla múltiples acciones de colaboración con otras ciudades y un gran esfuerzo en compartir conocimiento, valores culturales, etc. También por su implicación en la solidaridad a través múltiples programas y organizaciones.

“Europa nos ocupa y nos preocupa. Esta es una ciudad que no solamente es europea por su situación física, sino por que se siente europea, se siente identificada con unos valores que son la esperanza del mundo. Reforzar nuestras alianzas a través de las ciudades es clave para conseguir un mundo más humano y solidario, donde todas las personas tengan la oportunidad de poder vivir en unas condiciones dignas y una esperanza de ser, realmente, igual que las demás”, ha señalado Goia.

“Nos creemos los Objetivos de Desarrollo Sostenible que tratamos de aplicar en todas nuestras acciones. Continuaremos trabajando por una Europa de la que nos sintamos orgullosas y orgullosos, pero conseguir el Premio Europa nos ayudará a avanzar más, y más profundamente, en el ideal europeo y a contribuir a que muchas mas ciudades se sumen a trabajar por esos valores”, ha indicado el primer edil donostiarra.

El Premio se entrega durante el "Día de Europa" organizado por el municipio galardonado. Este reconocimiento consiste en un trofeo, una medalla de bronce, un pergamino conmemorativo y una beca destinada a financiar viajes de estudio para jóvenes en Europa, con el fin de que conozcan las principales instituciones europeas.

Así mismo, la ciudad entra a formar parte de la "Asociación de ciudades galardonadas con el "Premio de Europa". Se trata de una "Comunidad de trabajo" creada en 1984 que reagrupa a todas las ciudades que han ganado este Premio.

Hasta la fecha, se ha galardonado a más de 70 municipios.

Donostia, 11 de abril de 2019